

San Pelaioiko jai batzordea

Ekainaren 26an San Pelaio eguna ospatuko da eta horrekin batera COFISAPEk, edo San Pelaio auzoko jai batzordeak, hainbat ekitaldi burutuko ditu aste osoan zehar.

- Zein urtetan sortu zen taldea?

Aspaldi hasi ginen San Pelaioiko jaiak antolatzen baina taldea 2005ean erregistratu zen. Aldapa Elkarteko kideek hartu zuten hasieran honen ardura (tartean Antonio Rivera) eta duela 10 bat urte Paco Pérezek hartu zuen. Egun Xabier Pérez da taldeko lehendakaria.

- Zenbat kide zarete?

Gaur egun 6 edo 7 lagunek osatzen dugu taldea.

- Zeintzuk dira zuen helburuak?

San Pelaio 14 urterekin hil zuten martiria izan zen. Horregatik gure auzoko jaiak umeei zuzenduta daude eta eurak ondo pasatzea da gure helburua. Martiriaren historia ezagutu dezaten ere nahi dugu eta urtero kontatzen diegu. Horretaz gain, nagusientzako ekitaldiak prestatzen ditugu eta etorkinen integrazioa bultzatzen dugu.

- Zein maiztasunekin biltzen zarete?



Jaiak ospatu baino 2 hilabete lehenago hasten gara lanean. Egia esan, urte batetik bestera ez da aldaketa nabarmenik egoten jai egitarauan eta horrek gure lana errazten du.

- Zer nolako ekitaldiak antolatzen dituzue?

Astelehenetik ostiralera bitartean umeentzako jolas didaktikoak eta dibertimenduzko jolasak eskaintzen ditugu, hala nola bideko segurtasun-arauak lantzen dituzten jolasak. Asteburuan, berriz, goizean umeentzako ekitaldiak daude eta arratsaldean helduei zuzendutakoak. 2010ean motoren erakustaldia egin genuen baina aurten ez dago horretarako aurrekon-

turik. Bizilagunen bazkariak, ordea, sekulako arrakasta izan zuen iaz: 300 lagunetik gora bildu ginen! Duda barik aurten ere bazkaria egingo dugu, auzoko arteko konfiantza sendotzen laguntzen duelako. Gainera parkean leku aproposa dugu horrelako ekimen jendetsuak burutzeko eta euria eginez gero, estalirik dagoen pergolara joan gaitzke.

- Zuekin harremanetan jartzeko?

Taldea zabalik dago eta parte hartu nahi duten guztiak ongi etorriak izango dira. Lekukoa eskuz aldatzeko desiratzen gaude, gazteek hartu behar dutelako honen ardura.

Dorleta Vidal

**OKINDEGIA
GOZOTEGIA**

San Antonio

Izelaiaeta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

GARAGARDOTEGIA

CERVECERIA

ZYTik

OTARTEKO eta
IMPORTAZIOZKO
GARAGARDOtan
berezitasuna

943 17 39 78